

Poxpolo pailazoari elkarrizketa

Iker Galartza, Poxpolo pailazoa da. Berari elkarrizketa hau egin diogu "Eskola eta Festa" DVDa grabatu dutelako.

- Zer kontatzen da "Eskola eta Festa" DVDan?
- Bi istorio kontatzen dira:
Lehenengo istorioa, udako oporrak baino lehen gertatzen da. Poxpolok eta Mokolok eskolako azken egunean hamaika abentura biziko dituzte Mister Flores irakasle xeblearekin. Istorio barregarri horrek badu alde pedagogikoa ere; haurrek Poxpolo eta Mokolorekin batera irudi geometrikoak ikasiko baitituzte.
- Eta gero Poxpolo eta Mokolo oporretara joango dira, ezta?
- Bigarren istorioan, eskola kontuak bukatu eta oporretara joango dira pailazoak. Afrikara egingo dute bidaia. Han tribu bateko gizon bat ezagutuko dute: Abebe


Zer gertatzen da Afrikan?

- Abebek bere lurraldeko animaliak erakutsiko dizkie: elefanteak, jirafak, hipopotamoak, krokodiloak... Bigarren istorio honekin, beraz, munduko beste kultura batzuk ezagutzeko aukera izango dute haurrek.
- Ondo pasatzeaz gain, ikasteko aukera ematen du DVDak?
- Bai, une atsegin bat pasatzen duten bitartean, gauzak ikasteko edo hobeto ezagutzeko aukera dute umeei.
- Nola bururatu zaizue DVDA egitea?
- Emanaldia bukatzen genuenean jende asko etortzen zen bideoa eskatzera; baina, emanaldia ez genuen inon grabatu eta ezin izan genion eskaerari erantzun. Halakorik gerta ez dadin, emanaldia grabatzea erabaki genuen.
- Harrera ona izango duela uste al duzue?
- Bideoak herriz herri bueltaka ibilitako ikuskizuna etxean ikusteko aukera eskaintzen du. Lan txukuna da, etxean edukitzeko modukoa.

Hiztegia:

- . Xumea: txikia
- . Une: memento
- . Emanaldi: ekitaldi, antzezpen
- . Txukuna: dotorea, egokia
- . Bururatu: pentsatu
- . Pozoitsu: benenodun





DVDa.

Izenburua: “Eskola eta festa”.

Egilea: Poxpolo, Mokolo eta konpainia.

Iraupena: 60 minutu.

Argitaratzailea: Poxpolo, Mokolo ...ta konpainia.



(Berri egunkariaren “Mantangorri” gehigarritik moldatua)

A eredia (LH 3. zikloa)

IZENA:.....DATA:.....

Poxpolo eta Mokolo- Ariketak

1. Esan esaldi hauek egia edo gezurra diren: E/G (E=egia – G=gezurra)

Poxpolo eta Mokolo pailazoak dira.

Elkarrizketa hau Iker Galartzari egindakoa da.

“Eskola eta Festa” DVDak ordu erdi irauten du.

DVD honetako protagonistak: Takolo, Mokolo eta Poxpolo dira.

2. DVD honen edukia honako hau da: (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

Poxpolo eta Mokoloren kantak

Poxpolo eta Mokoloren istorioak

Zenbakiak ikasteko ariketak

3. Zein da egia? (Jarri X erantzun egokiaren laukian)

Lehenengo zatian gelan daude, eta bigarreanean, patioan.

Lehenengo zatian eskolan daude, eta bigarreanean, oporretara joango dira.

Oporretatik etorri eta eskolara doaz.

Afrikako eskola batean gertatutakoa kontatzen dute.

4. Testuan animalia batzuk agertzen dira: elefanteak, jirafak... Ezagutzen al duzu Afrikako beste animalia bat?

.....
.....

5. Zergatik uste duzu grabatu dutela DVD hau?

.....
.....

6. Lotu gezien bidez esaldiak osatzeko.

Abebe Afrikako erakusten ditu

Abebe Afrikako animaliak gizon bat da

Abebek Afrikako tribu batean bizi da

Orain idatzi ongi goiko esaldiak:

Abebe.....

Abebe.....

Abebek.....

7. Aukeratu eta idatzi: du/ditu

Abebek animaliak

Jirafak lepo luzea

Elefanteak belarri handiak

DVD honek istorio dibertigarriak kontatzen

8. Nolakoak izan daitezke animalia hauek (aukeratu gehien egokitzen zaion hitza eta idatzi)

Elefantea: (argala-beldurtia-handia)

Jirafa: (txikia-altua-itsusia)

Krokodiloa: (arriskutsua-lasaia-iletsua)

Sugea: (itsua-gezurtia-pozoitsua)

9. Testu honetan esaldien hasieran gidoia (-) agertzen da. Zergatik?

<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>

Esaldi hori inportantea delako.

Bi pertsonaren arteko elkarrizketa delako.

Pailazoak direlako.

Ez dakigu zergatik.

10. Zure ustez, zein hilabetetan gertatzen da DVDan grabatu duten lehenengo istorioa? Zergatik pentsatzen duzu hori? Idatzi

.....

.....

.....

